LEGAZPIKO UDALA Udaltzaingoa

# TXOSNA USTIATZEKO BAIMEN ESKAERA
# UD-600

Sarrera

## 1 Eskatzailearen datuak

| Eskatzailea | | | |
|---|---|---|---|
| NA-IFK | Helbidea, Herria eta P.K | Telefonoa | Faxa |
| | | | |

## 2 Ordezkariaren datuak

| Izena eta deiturak | | | |
|---|---|---|---|
| NA | Helbidea, Herria eta P.K | Telefonoa | Faxa |
| | | | |

## 3 Eskaeraren datuak

Txozna jartzearen arrazoiak:

## 4 <u>NAHITAEZ</u> erantsi beharreko dokumentuak

- ☐ NA fotokopia
- ☐ Beharbada, Elkartearen IFKren fotokopia

## 5 BETE BEHARREKO ARAUAK

a) -Eskaera egiteko epe muga: 2015.eko martxoaren 17 arte
   -Lekua: Legazpiko Udaleko Herritarrentzako arreta zerbitzua
b) -Bermea: 2015/04/25a baino lehen 300 €ko bermea ezarriko da.
(gainontzeko bete behar orokorrak, atzekaldean)

Abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, nire baimena ematen dut ondoko datu hauek Legazpiko Udal jabegoko fitxategian sar daitezen eta Udalak bere eskumeneko eginkizunetan erabili ditzan. Modu berean fitxategietara jotzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eta aurka egiteko eskubideen berri badudala adierazi nahi dut.
Halaber, fitxategiaren arduraduna Legazpiko Udala dela adierazi didate ( Euskal Herria plaza, 1. 20230 Legazpi)

| Lekua eta data | Eskatzailearen sinadura |
|---|---|
| Legazpin, (e)ko ren (e)an | |

I.F.K.: P-2005500-J • Euskal Herria Plaza, 1 • Tel.:943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpi.eus • legazpi@legazpi.eus

| 5 | Baldintza orokorrak: | **Atzealdea** |
|---|---|---|

1.- Udalaren kontura joango da olana edo karpa, taulatua, harraska, argindarra eta ur-hornidura, gainerako elementuak, barra, musika ekipoa eta gainontzekoak jartzea, eskatzailearen kontura joango dira.

* Txosnagunean argindarra moztu egingo da goizeko 06:00etatik 11:00etara.

2.- Aipatu karpa esleipendunek erabiltzeko moduan egongo da apirilaren 28ko arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Aldiz, maiatzaren 7ko arratsaldeko 16:00etarako dena jasota egongo da.

3.- Txosnaren jarduerari apirilaren 30eko arratsaldeko 19:00etatik aurrera ekin ahal izango zaio. Jarduera hori maiatzaren 4ko arratsaldeko 21:00etaraino eskaini ahal izango da.

4.- Ordutegia:

Irekiera, eguerdiko 12:00etan eman ahal izango zaio hasiera jarduerari.

Itxiera, goizaldeko 05:00etan emango zaio, ordu horretarako karpa erabat itxita eta hutsik egongo da.

5.- Edalontziak, platerak edo bestelako ontziak **berrerabilgarriak** izango dira. Horretarako, Udalak herriko elkarteen eskura jarriko du berak duen ontziteria berrerabilgarria, hura erabiltzeko baldintza egokietan. Ontzi horiek denak itzuli egin behar dira eta, beraz, leku agerian jarriko dira horren berri ematen duten kartelak. Kartel horiek Udalak emango ditu.

6.- Txosna eta ingurua garbi eta txukun mantenduko da.

7.- Hondakinak biltzeko, beharrezko ontziak erabiliko dira eta denek itxitura hermetikoa izango dute. Hondakinak ez dira pilatzen utziko eta, beraz, ontzi horiek behar denean hustu egingo dira. Kanpoaldean, sor daitezkeen hondakin organikoak biltzeko ontzia eta errefusa biltzeko ontzia jarriko dira.

8.- Txosna gunean ez da irudi sexistarik dituen kartelik jarriko.

9.- Arauak betetzen ez dituen taldeari ez zaio fidantza itzuliko eta hurrengo bi urtetan ezin izango dute txosna gunean parte hartu.

10.- Eskatzaileak herriko elkarteak izango dira, azkeneko urtean zehar herrian ekintzak burutu dituztenak. Ez da alderdi politikorik onartuko.